

IRUZUR FISKALAREN ETA EZKUTUKO EKONOMIAREN AURKAKO 2016-2019 BORROKA PLANARI HERRITARREK EGINDAKO EKARPENEN PROZESUKO EMAITZEI BURUZKO TXOSTENA

1. PARTE-HARTZE PROZESUKO EKARPENEN ETA EKARLEEN LABURPENA

Iruzur Fiskalaren aurkako 2016-2019 Borroka Planaren (IFBP) proiektua Iruzur Fiskalaren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordeari aurkeztu zitzaion 2016ko ekainaren 7an. Egun hartan, hedabideei igortzeaz gainera, Gobernuaren webgunean txertatu zen eta herritarrei parte-hartzeko aukera eskaini zitzaion gobiernoabierto.navarra.es webgunearen eta FraudeFiscal@navarra.es helbidearen bidez. Uztailaren 20a bitarteko epea ezarri zen jendeak bere ekarpenak bidal zitzaion.

Jendaurrean egondako denboran, bide hori erabiliz honako ekarle hauek beren ekarpenak aurkeztu zituzten:

- Bost herritar
- Sindikatu bat

Argitu behar da partaidetza prozesu hau herritarrei zuzendua izan zela, zeren eta parlamentari taldeek, enpresaburuek, sindikatuak eta beste entitate sozioekonomiko batzuek beste foro bat izan baitute, Iruzur Fiskalaren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordearena berarena, han egin zitzaion beren iradokizunak, eta horiek ere IFBPan bildu dira.

Arrazoi horregatik, txosten honetan ez dugu aipatzen sindikatuaren ekarpena (Batzordeko kide baita), baina bai, ordea, Planaren azken idazketan.

Prozesu honetan parte hartu duten bost pertsonak aurkeztutakotik hamabi ekarpen zehatz atera dira; horiek laburtuta biltzen dira txosten honetan, honela antolaturik:

- Bi ekarpenek adierazten dute beharrezkoa dela merkatarien eta profesionalen tiket eta fakturen jaulkipena kontrolatzea.
- Ekarpen batek aipatzen du Nafarroako Zerga Ogasunean bertan egiten den kontratazioa.
- Beste ekarpen bat irakasle batek egina da: bere burua eskaintzen du ikasgeletan lantzeko zerga-hezkuntzako materialgintzan laguntzeko.
- Bost ekarpenek azpimarratzen dute beharrezkoa dela Planean jadanik bilduak dauden alderdi batzuk nabarmentzea edo testuinguruan kokatzea.
- Bi ekarpenek iradokitzen dituzte jadanik Planean aipatzen diren hobekuntza modu zehatz batzuk.

- Ekarpen batek proposatzen du berrikustea betebeharrak borondatez betetzeagatiko pizgarria, dudatan jarriz haren erabilgarritasuna.

Gobernu Irekiak kortesiazko erantzun automatiko bat bidali zien parte-hartzaile guztiei, eskerrak emanez prozesuan parte hartzeagatik eta jakinaraziz aztertuko zirela egindako ekarpenak. Horretaz gainera, haietako bakoitzari parte-hartze prozesu honen emaitzen txostena bidali zitzaien urriaren 14an.

2. PLANAREN EDUKIARI BURUZKO GAIAK

Atal honetan, parte-hartzaileen ekarpenak azaltzen dira eta argudiatzen da zergatik erabaki den Planean sartzea, nola sartu diren zehaztuz, edo kanpo uztea.

2.1. Osorik edo partez onartu diren proposamenak

2.1.1. Tiketen edo fakturen kontrola

- Merkatarien eta profesionalen tiketen jaulkipena kontrolatu beharra edo haien faktura-egiaztagirian kontzeptua eta zergak bereizita eman beharra. Proposamena onartu da. Horri dagokionez, IFBPan aurreikusita dago kutxa erregistratzaileen kontrolerako sistema bat ezartzeko proiektua. Ekimen hori Euskal Autonomia Erkidegoko foru ogasunekin batera gauzatuko da, haietan dagoeneko funtzionatzen ari baita.
- Kontrolatu behar hori dela eta, ekarpen batek iradokitzen du kaleko jantzitako foruzainek egin lezaketela lan hori. Foruzaingoak lehendik ere, eta orain ere bai, Ogasunarekin elkarlanean dihardu era honetako kontrol lanetan.

2.1.2. Nafarroako Zerga Ogasuneko bertako kontratazioa

- Ekarpenetako batek aipatzen du men egin behar zaiola epai bati, hain zuzen ere PFEZko kanpainan erdi mailako teknikariak urtean 8 hilabetez (ez 3 hilabetez) kontratatzeraz behartzen duen hari. Jadanik men egiten ari zaio epaiari; abuztuaren 1etik betetzen da haren kontratua.

2.1.3. Zerga arloko hezkuntza zibikoa

- Ekarpen bat irakasle batek egin da: bere burua eskaintzen du ikasgeletan lantzeko zerga-hezkuntzako materialgintzan laguntzeko. Nafarroako Zerga Ogasuna pertsona horrekin harremanetan jarri da, haren ideiak jasotzeko, gero Zerga arloko hezkuntza zibikoaren planean garatzeko asmoz.

2.1.4. Planean jadanik kontuan hartutako alderdi batzuk nabarmendu edo testuinguruan jartzea

- Parte-hartzaile batek iradokitzen du adierazi beharko litzatekeela ezen iruzur fiskalak, orokortasun, berdintasun eta justizia printzipio oinarritzkoen aurka egiteaz gainera, oso kaltegarria den beste ondorio ere badakarrela: iruzur egiten duten enpresa edo agenteek lehia desleiala ere egitea. Halaxe sartu da azken idazketan.
- Parte-hartzaile horrek, halaber, uste du Tributu Administrazioak urrats bat egin lezakeela aurrera zergapekoei ematen zaien informazioaren eta laguntzaren arloan, zergapeko horiek hobeki uler ditzaten eman beharreko pausoak, hartu beharreko balorazioak, etab. Planak gehitu ditu webguneko informazioaren hobekuntza, jendeari arreta egiteko postuen espezializazioa eta araudiaren sinplifikazioa.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea zehazten den atalari dagokionez, eskatu da espresuki aipa dadin ekingo zaiola lankidetzaz estutzeko Europar Batasuneko beste herrialde eta eskualde batzuekin, Hércules III eta Fiscalis 2020 programen bidez. Jadanik hasia da ekimen hori, ECOFINen bileretara joanez.
- Beste ekarpen batek adierazten du ezen, ikusirik ezkutuko ekonomiaren munta barne-produktu gordinaren (BPGd) % 15-20 jotzen dela, komeniko litzatekeela zenbateko hori ematea gastu publikoko neurri batekin alderatuz, galeraren garrantzia are ikusgarriagoa izateko. Halaxe sartu da azken idazketan.
- Proposatu da, baita ere, azpimarratu behar dela zein garrantzitsua den herritarrek kontzientzia hartzea zergak erabiltzen direla, gastu publikoaren bidez, premia publikoei eta arazo kolektiboei aurre egiteko. Herritar horrek uste du eginkizun hori ez dagokiola bakarrik Nafarroako Ogasunari, baina ongi dagoela Planean sartzea, eta espero du garatuko dela.

2.1.5. Kontuan hartuak ziren hobekuntzarako iradokizun zehatzak

- Higiezinaren identifikazioa hobetzeko, “lur-ondasunak” atalean, erantzunak aurki litezke SITNaren 2016-2019 Plan Estrategikoan. Iradokizun hori ere kontuan hartuko da; izan ere, Nafarroako Zerga Ogasuna jadanik parte hartzen ari da SITNaren koordinazio batzordean.

- Ogasuneko teknikari lanpostu hutsetara sartzeko prozesuan parte hartzeko aukera zabaltzea A mailako enplegatuei, eta beste mailetakoei, prestakuntzarako zerbitzu berezien bidez. Halaxe egin da aurtengo uztaileko hautapen prozesuan.

2.2. Kontuan hartuko ez diren aldaketa proposamenak

- Ekarpen batek galdetzen du (betebeharrak borondatez betetzeari buruzko atalean) ea berraztertze errekurtoak, halakoren bat dagoenean, balio ote dezakeen egiazki argitzeko Tributu Administrazioaren eta zergapekoaren artean sortzen diren eztabaidak, edo zergapekoei ez ote zaien a priori iruditzen ez duela balioko, egintza ematen duen organo berberak ebatzen duelako auzia eta, beraz, organo horrek beti jokatuko duelako hasieran erabili zituen irizpideen alde. Ohar hori aztertuta, uste da, ordea, berraztertze errekurtoaren bidea izatea ez dela traba metodo gisara, nahiz ez den maiz baliatzen, alegazio fasean argudioak ematen jakin ez den likidazioak konpontzeko.